

1 9 9 7
G I D A

LAN - ESKUBIDEAK POSTA-n

*LANTEGIETAN GURE ESKUBIDEEN
OINARRIZKO INFORMAZIOA EDUKITZEKO*

LAB
langile abertzaleen batzordeak

1997.ko APIRILA

Zbkia

ŠK00014

DOKUMENTAZIO
ZENTROA

ZABALEN

AURKIBIDEA

1. KAPITULUA.-	
BAIMENAK	5
1.1.- ORDAINDUTAKO HAINBAT BAIMEN	5
1.2.- AMATASUN-AITATASUNARI BURUZKO BAIMENAK	6
1.3.- ORDAINDU GABEKO BESTE ZENBAIT BAIMEN	6
1.4.- BAIMENAK UKATZEKO EPEAK	7
2. KAPITULUA.-	
MUFACEren PRESTAZIOAK	9
2.1.- UNIBERTSITATE-IKASKETAK	10
3. KAPITULUA.-	
LAN-EGUTEGIA	11
4. KAPITULUA.-	
PENTSIOAK. MOTAK ETA KALKULUA	13
4.1.- ERRETROKO PENTSIO ARRUNTAK	13
4.2.- APARTEKO PENTSIOAK	13
4.3.- PENTSIOEN KALKULUA	15
5. KAPITULUA.-	
LANGABEZIAGATIKO PRESTAZIOAK	17
5.1.- LANGABEZIAGATIKO BABESAREN EDUKIA	17
5.2.- PRESTAZIOAK JASOTZEKO BALDINTZAK	17
5.3.- PRESTAZIOAREN IRAUPENA	17
5.4.- PRESTAZIOAREN ZENBATEKOÅ	18
5.5.- PRESTAZIOEN ESKAERAK NOLA BIDERATU	18
5.6.- PRESTAZIOA ONARTZEKO AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK	18
5.7.- PRESTAZIOAREN ORDAINKETA	19
5.8.- PRESTAZIOA ETENARAZI ETA PRESTAZIOARI BERREKIN	19
5.9.- AUKERATZEKO ESKUBIDEA	19
5.10.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK	20
5.10.1.- Arau-hauste arinak	20
5.10.2.- Arau-hauste larriak	20
5.10.3.- Oso arau-hauste larriak	20
5.11.- LANGABEZI-SUBSIDIOA	21
5.11.1.- Langabeziagatiko prestazio ordainduak	
agortu dituzten langileak	21
5.12.- LANGABEZI-SUBSIDIOARI EGINDAKO ATXIKIPENAK	22

6. KAPITULUA.- AHAIDETASUN-MAILEN KOADROA	23
7. KAPITULUA.- BAJAK. PROZEDURA ETA ORDAINKETAK	25
7.1.- FUNTZIONARIOAK	25
7.2.- LAN-KONTRATUKO LANGILEAK	25
7.3.- BEHIN-BEHINEKOAK: AMATASUN EDO BESTELAKO BAJAN EGONIK KONTRATUA BUKATZEA	25
7.4.- BEHIN-BEHINEKO LANGABETUAK: GAIXOTASUN EDO AMATASUNAGATIKO BAJA	26
8. KAPITULUA.- FUNTZIONARIOEN ALOKAIRUAK 1996an	27
9. KAPITULUA.- LAN-KONTRATUKO LANGILEEN ALOKAIRUAK 1996an	31
10. KAPITULUA.- BEHIN-BEHINEKO LAN KONTRATUKOAK, ORDAINKETEN KALKULUA	35
11. KAPITULUA.- EUSKARA IKASTAROEN ORDAINKETA	37
ERANSKINA.- PFEZ (IRPF) KENKARIAK BASKONGADETAN	38
PFEZ (IRPF) KENKARIAK NAFARROAN	39
LABeko SEDEAK	40

BAIMENAK

1.1.- ORDAINDUTAKO HAINBAT BAIMEN

- **Norberaren gaiak:** 6 egun. Ez dira oporretara gehituko.
- **Familiartekoen heriotza edo gaixotasun larria** (odól-ahaidetasuneko 2. maila arte): Udalerri berdinean, 2 egun. Beste udalerri batean gertatuz gero, 4 egun. Bi edo lau egun hauek, baimena ematen deneko ekintza gertatu eta berehalako hurrengoak izango dira, hauek lanegunak nahiz jaiegunak izan.
- **Etxe-aldaketa** (egoitz-aldaketarik gabe): Egun bat.
- **Azterketa finalak eta gaitasun- eta ebaluaketa-probak** (ikastetxe ofizialetan).
 - FUNTZIONARIOAK: azterketa-egunetan, honako nabardura honekin: funtzionarioaren lantokia dagoen lekuan eta bere lanaldiaren barnean egingo diren azterketetarako, beharrezko denbora hartzeko eskubidea izango du.
 - LAN-KONTRATUKO LANGILEAK: egun osoko baimenak hartzeko eskubidea dauka, baina urtean gehienez 15 egun hartu ahal izango ditu.
- **Prestakuntzarako baimenak:** Urtean berrogei ordu gehienez, lan-trebakuntzarako ikastaroetan parte hartzeko, ikastaroa Administrazioetik kanpo burutzen denean, eta ikastaroaren edukiak zuzeneko harremana duenean lanpostuarekin edota langilearen Administrazioiko karrera profesionalarekin. Epe honetan oinarritzko ordainsariak jasoko dira.
- **Ezkontza:** 15 egun. Ezkontzaren aurretik edo ondoren goza daitezke. Baimena zatitu egin daiteke.
- **Nahitaez, norberaren betebeharrak nahiz betebeharrak publikoak betetzea:** behar besteko denbora. Honi buruz, lan-kontratuko langileek ezingo dituzte hiruhilekoko lan-orduen 1/5 baino gehiago hartu.
- **Urteroko oporrak:** Lan-kontratukoentzat hilabete. Bi hamabostalditan bana daitezke. Funtzionarioentzat lan-hilabetea. 15 laneguneko bi alditan bana daitezke.
- **Lanaldi murriztua:** Betetzen den lanpostuarekin edo lantegiko funtzioekin bat datorenean, 27tik beherako lantoki-osagarria duten lanpostuetako langileek, Langileen Kudeaketarako Zuzendari orde nagusiari lanaldi murriztua eskatu ahal izango diote; lanaldi hori etenik gabekoa izango da, 9etatik 14etara bitartekoa, eta ordainsarien % 75 jasoko dute.

1. KAPITULUA

1.2.- AMATASUN-AITATASUNARI BURUZKO BAIMENAK

- **Seme edo alabaren jaiotza:** 2 egun udalerrian bertan; 4 egun beste batean jaio bada.
- **Amatasunagatiko baimena:** Etenik gabeko 16 asteetarako baimena. Haurra izan baino lehen edo geroago har daitezke, baina 6 aste, nahitaez, erditu ondoren hartu behar dira. 16 aste horietatik, azken lauak aitak ala amak har ditzake.
- **9 hilabetetik beheragoko haurrari esne-ematea:** Lanetik ordubete ateratzeko eskubidea. Bi zatitan bana daiteke edota lanaldia ordu erdian murrizteagatik ordezkatu. Amak eskubide hau erabiltzen ez duenean, aitak egin dezake.
- **Gutxitasun fisiko nahiz psikikoa duen 6 urtetik beheragoko seme edo alabaren lege-zaintza** (ordaindutako iharduerarik burutzen ez duenean): 1/3 eta 1/2 bitarteko lanaldi-murrizketa eskatzeko eskubidea, baina ordainsariak ere proportzio berdinean murriztuko dira. Lan-kontratukoek, lana eta haurraren asistentzia bat etortzea eginaraz dezakeen ordu-tegi malgua eska dezakete.
- **Hiru urtetik beheragoko seme edo alabaren arretagatiko eszedentzia:** Ezin da egoera honetan egon haurra jaio eta hiru urte baino denbora gehiagoz. Jaiotza berriek eszedentzia berriak eskatzeko eskubidea ematen dute. Adopzio-kasuetan aplikagarria da. Ordainsaririk gabe. Gehienezko epea bukatzen denean, berriz ere lanean hasteko eskaria egin behar da.

1.3.- ORDAINDU GABEKO BESTE ZENBAIT BAIMEN

- **Norberaren gaiengatiko baimenak:** Gehienez ere, bi urtetik behin 3 hilabete har daitezke. Lan-kontratuko langileek lehenagotik urtebeteko lan-jarduna izan behar dute. 15 egun eta 3 hilabete bitartekoa izango da.
- **Borondatezko eszedentzia:** Honetaz baliatu ahal izateko, edozein Administrazio publikotan aurreko berehalako 5 urtetan zerbitzu efektiboak beteta eduki behar dira, eta ezingo da eszedentzi egoera honetan egon bi urte jarraian baino denbora gutxiagoz, ezta Administrazioan lanean jardun dituen urteak baino gehiagoz, 15 urte, gehienez ere. Eszedentzi aldia bukatu baino lehen berriz ere lanean hasteko eskaria egin behar da, bestela funtzionario izaera galduko baita.

Lan-kontratukoentzat: Antzintasun urte bat eduki behar da. Egoera honetan 2 eta 5 urte bitartean egon ahal izango dira.

- **Familia elkarketagatiko borondatezko eszedentzia:** Ezkontidea edozein Administrazioan funtzionario nahiz lan-kontratukoaren behin-betiko izaera eskuratzeagatik beste udalerrri batean bizi denean eskatu ahal izango da. Bi eta hamabost urte bitartekoa izan daiteke.
- **Zerbitzu bereziengatiko egoera:** Lanpostua gorde egiten da eta denbora antzintasunerako zenbatu egiten da.

Kasu arruntenak:


- Soldadutza edo ordezko prestazioak betetzea.
- Diputatu, senatore edo autonomi diputatu izateko aukeratzea.
- Udal-gorporazioetan ordaindutako eta dedikazio osoko hauta-karguak betetzea.

1.4.- BAIMENAK UKATZEKO EPEAK

92ko Administrazioaren Legea araubidez garatzen duen 94ko 1.777 Errege Dekretua baimenak emateko epeak finkatu ditu, eta epe hauek bete ostean erantzunik ez badago, eskaria emantzat hartuko da.

Hona hemen:

OPOR ARRUNTAK	HILABETE
JAIOTZA, HERIOTZA EDO GAIXOTASUN LARRIAGATIKO BAIMENAK	LANEGUN BAT
ETXE-ALDAKETAGATIKO BAIMENAK	10 LANEGUN
AZTERKETENGATIKO BAIMENAK	3 LANEGUN
EZINBESTEKO DENBORAGATIKO BAIMENAK	3 LANEGUN
AMATASUN EDO ADOPZIOAGATIKO BAIMENAK	3 LANEGUN
NORBERAREN GAIENGATIKO BAIMENAK	10 LANEGUN
JABE EGITEKO LUZAMENDUAK	20 LANEGUN
NORBERAREN INTERESAGATIKO BORONDATEZKO ESZEDENTZIAK	3 HILABETE
SEME-ALABAK ZAINTZEKO ESZEDENTZIA	HILABETE



MUFACE. PRESTAZIOAK

Laguntzak ugariak direnez, erabilieneen berri besterik ez dugu emango. Informazio gehiago nahi izanez gero, zure herrialdeko L.A.B.eko ordezkariekin edota, zuzenean, MUFACEko ordezkarietarekin jar zaitezke harremanetan.

1.996 urterako prestazioak honakoak dira:

<p>1.- GAIKOTASUN EDO ISTRIPUAGATIK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Mutuaduna edo bere onuradunarentzako sendagile- eta ospital-asistentzia. • Mutuaduna edo bere onuradunentzako botika-prestazioak. • Mutuaduna edo bere onuradunentzako, protesiaren ordainketa osoa edo zati batekoa. • Mutuadunaren Zerbitzuan iharduteko Aldibaterako Ezgaitasuna edo Behin-behineko Elbarritasunagatiko subsidioa. • Elbarrigarriak ez diren mutuadunaren lesio iraunkorrenagatiko kalte-ordainak. 	<p>3.- MUTUADUNAK ETXEA EROSTEAGATIK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Etxe-salerosketarako edo norberak bere etxebizitza eraikitzeko eskatu diren maileru hipotekarioen interesak estaltzeko laguntza ekonomikoa. 	<p>5.- MUTUADUNAREN ERRETIROAGATIK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Erretiro-subsidioa • Ezgaitasun handiagatiko Prestazio Ekonomikoa • Mutuaduna eta bere ezkontidearentzako Hirugarren Adinekoen Egoitza eta Elkarreak. • Mutuaduna eta bere ezkontidearentzako Hirugarren Adinekoen oporrak. • Mutuaduna eta bere ezkontidearentzako balneoterapia.
<p>2.- SEME EDO ALABA GUTXIAGOTUAGATIK</p> <ul style="list-style-type: none"> • 18 urtetik beheragoko seme edo alaba gutxiagotuatik hileroko laguntza ekonomikoa. • 18 urtetik goragoko seme edo alaba gutxiagotuatik hileroko laguntza ekonomikoa. • 18 urtetik goragoko seme edo alaba gutxiagotua izan eta honek beste pertsona baten laguntza behar duen kasuagatiko hileroko laguntza ekonomikoa. 	<p>4.- UNIBERTSITATE-KASKETENGATIK</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Mutuadunarenak</i> - • Matrikula-beka - <i>seme-alaba edo umezurtzenak</i> - • Egoitza-beka 	<p>6.- HERIOTZAGATIK</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Mutuadunarena</i> - • Bere onuradunentzako Heriotza Subsidioa - <i>Onuradunena</i> - • Mutuadunari Ehorzketarako laguntza.
	<p>7.- EZINBESTEKO EGOE-RA BEREZIENGATIK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Asistentzi laguntzak 	

2. KAPITULUA

Gehien erabiltzen direnen zerrenda:

HORTZEI BURUZKOAK:

Goiko edo beheko hortzen protesia	22.500 pta
Hortz-protesi osoa	45.000 pta
Pieza solteak (bakoitzeko) eta bergaitze handiak	5.000 pta
Oreztapenak (bakoitzeko)	2.500 pta
Ezarketak	10.000 pta
18 urte bete aurretik hasitako ortodontzia (aurrekontuaren %30) gehienez	45.000 pta

IKUSMEN-ENTZUMENARI BURUZKOAK:

Urruneko edo gertuko betaurrekoak	5.500 pta
Fokubiko betaurrekoak	10.000 pta
Telelupa betaurrekoak	25.000 pta
Beiren aldaketa (bakoitzeko)	2.000 pta
Telelupa beiren aldaketa (bakoitzeko)	6.000 pta
Lentilak (bakoitzeko)	5.000 pta
Entzungailua (bakoitzeko)	45.000 pta

2.1.- UNIBERTSITATE-IKASKETAK

- 1.- Funtzionarioarentzako matrikula-beka: 60.000 pezeta gehienez. Eraitza akademiko-ra baldintzatuta.
- 2.- Funtzionarioen seme-alaba edo umezurtzentzako egoitza-beka: Egoitzagatiko gastuak ordaintzeko. Ikasturte honetarako eman direnak 630.000 pezetakoak izan dira.

OHARRA: Ikasketetarako diru-laguntzen urteroko deialdia apirila edo maiatza bitartean egin ohi da.

1997.KO LAN-EGUTEGIA

NAFARROA

Urtarrilaren 1a: Urte berria

Urtarrilaren 6a: Epifaniaren Eguna

Martxoaren 19a: San Jose

Martxoaren 27a: Ostegun Santua

Martxoaren 28a: Ostiral Santua

Martxoaren 31a: Pazko Astelehena

Maiatzaren 1a: Langileen Eguna

Abuztuaren 15a: Ama Birjinaren Eguna

Azaroaren 1a: Santu Guztien Eguna

Abenduaren 3a: Nafarroaren Eguna

Abenduaren 6a: Espainiar Konstituzioa-
ri dagokion atsedeen-eguna

Abenduaren 8a: Sorkunde Garbia.

Abenduaren 25a: Eguberri Eguna.

GIPUZKOA, BIZKAIA, ARABA

Urtarrilaren 1a: Urte berria

Urtarrilaren 6a: Epifaniaren Eguna

Martxoaren 27a: Ostegun Santua

Martxoaren 28a: Ostiral Santua

Martxoaren 31a: Pazko Astelehena

Maiatzaren 1a: Langileen Eguna

Uztailaren 25a: Santiago Apostolua

Abuztuaren 15a: Ama Birjinaren Eguna

Azaroaren 1a: Santu Guztien Eguna


Abenduaren 6a: Espainiar Konstituzioa-
ri dagokion atsedeen-eguna

Abenduaren 8a: Sorkunde Garbia.

Abenduaren 25a: Eguberri Eguna.

Hitzarmenez, lan-kontratuko langileentzat **Abenduaren 24 eta 31** jaiegunak dira.

Nafarroan jai-egun bat adieraztea falta da: Udal bakoitzari dagokion tokian tokiko jai.
Bizkaia, Gipuzkoa eta Araban bi jai falta dira: Herrialde bakoitzari dagokiona bate-
tik, eta Udal bakoitzari dagokiona bestetik.



PENTSIOAK. MOTAK ETA KALKULUA

Pentsioak arruntak edo apartekoak izan daitezke, sortzen direneko baldintzak arruntak ala iharduneango lesio, heriotz edo desagarkeretatik nahiz horren ondoriozkoak direnaren arabera.

4.1.- ERRETIROKO PENTSIO ARRUNTAK

a) Derrigorrezkoak: Legez ezarritako adina betetzean (une honetan, 65 urte), dena den, adin horretara iristean zerbitzu efektiboan 6 urte aintzatetsiak izan baina 15 urteetara iritsiko ez balitz, falta den denbora-tartea bete arte zerbitzu aktiboan jarraitzea eska liteke.

b) Borondatezkoak: 60 urte izan eta zerbitzu aktiboan 30 urte bete badira eska daiteke. Administrazioetik kanpo lan egin eta kotizatutako denbora ere zenbatu egiten da.

Lantokia finkatzeko zain edo derrigorrezko eszedentzia egoeran dauden eta ordainketak esleitzeko prozesu batek eragiten dien langileek **ordaindutako borondatezko erretiroa** eskatu ahal izango dute, beti ere 60 urte izan eta zerbitzu aktiboan 30 bete badituzte. Aldi bakarrean, Gobernuak finkatutako zenbatekoari dagokion kalte-ordaina jaso ahal izango dute.

Derrigorrezko erretiroa hartzeko bost urte baino gutxiago geratzen zaien funtzionarioek, lanaldia erdira murriztea eskatu ahal izango dute, araubidez finkatutako murrizketekin ordainketetan, eta beti ere zerbitzuaren beharrek horretarako aukera ematen dutenean.

c) Zerbitzurako ezgaitasun iraunkorra edo ezintasuna: Ofizioz edo alde batek hala eskatuta ematen da, lesio edo prozesu patologiko, somatiko edo psikiko batek eragin eta erabat finkatu delarik, sendaezina edo sendagaitza denean eta lesio horrek erabat eragozten dionean bere kidego, eskala edo lanpostuan ohiko ihardunak betetzea.

Pentsioak finkatzean aplikatu beharreko Hartzeko erregulatzailleak Estatuko Aurrekontu Orokorretan erabakitzen dira ekitaldi bakoitzean.

4.2.- APARTEKO PENTSIOAK:

Erretiroagatik aparteko pentsioa, ihardunerako ezgaitasun iraunkorra edo ezintasunagatik emango da, beti ere iharduneango edo ihardunaren ondoriozko istripu edo gaixotasunagatik sortu bada.

4. KAPITULUA

Erretiroagatiko pentsioaz gain, beste batzuk hildako langilearen senideen aldekoak dira, eta hauek arruntak zein apartekoak izan daitezke.

Alarguntasunagatik.

Ezkontidearen alde

Umezurztasunagatik.

21 urtetik beheragoko seme-alaben alde, edota nagusiagoak izanik, adin horretara iritsi aurretik edozein lan burutzeko ezintasuna izango balute eta doako justiziaren onuraz baliatzeko eskubidea balute.

Gurasoen alde. Beti ere haiek seme edo alabaren menpekotasun ekonomikoa izango balute hura hiltzeko unean, eta pentsioa eskuratzeko eskubidea lukeen ezkontide, seme edo alabarik ez balego.

1997-RAKO HARTZEKO ERREGULATZAILEAK

TALDEA	A	B	C	D	E
HARTZEKO ERREGULATZAILEA	4.467.898	3.516.350	2.700.618	2.136.688	1.821.649

Zerbitzu - urteak	Erregulatzai- learen portzentaia
1	1'24
2	2'55
3	3'88
4	5'31
5	6'83
6	8'43
7	10,11
8	11,88
9	13'73
10	15'67
11	17'71
12	19'86
13	22'10
14	24'45
15	26'92
16	30'57
17	34'23
18	37'88
19	41'54
20	45'19
21	48'84
22	52'50
23	56'15
24	59'81
25	63'46
26	67'11
27	70'77
28	74'42
29	78'08
30	81'73
31	85'38
32	89'04
33	92'69
34	96'35
35	100'00

4.3.- PENTSIOEN KALKULUA

Administrazioan lanean hasi denetik kidego, eskala edo lanpostu berdinean jardun duen langileari dagokion hartzeko erregulatzaila kontuan hartuko zaio kalkulua egiteko orduan, eta aintzatetsi zaizkion zerbitzu efektiboan urteen arabera portzentaia aplikatuko zaio.

Interesdunak zerbitzua hainbat kidego edo eskaletan bete badu, kalkulua hurrengo Formularen bidez egingo da:

$$P = R1C1 + (R2-R1)C2 + (R3-R2)C3 + \dots$$


R1, R2 eta R3 lehenengo eta ondorengo kidego, eskala edo lanpostuei dagokien hartzeko erregulatzailak izanik; eta C1, C2 eta C3 erregulatzailaren portzentaia, eskala bakoitzean igarotako urteen arabera.

Pentsioen urteko errenta, horrela finkatutako pentsioa zati hamalau eginez lortuko da.

Hamabi hileroko ordainsari arruntekin batera aparteko beste bi jasoko dira Ekain eta Abenduko lehen egunean.

Erretiro eta ihardunerako ezgaitasun iraunkoragatiko pentsioen kalkulua egiaztatzean, interesdunari derrigorrezko erretiroa jasotzeko falta zaizkion urte osoak egindako zerbitzu gisa kontuan hartuko zaizkio. Gainera, ez dago Ogasun-aitorpena egin beharrik.

Iharduneango edo ihardunaren ondoriozko istripu edo gaixotasunagatik sortutako erretiro edo ezgaitasun iraunkoragatiko lanuztearen aparteko pentsioa kalkulatzeko egiaztaketa egitean, interesdunari derrigorrezko erretiroa jasotzeko falta zaizkion urte osoak egindako zerbitzu gisa kontuan hartuko zaizkio, eta dagokion hartzeko erregulatzaila % 200 gisa hartuko da.



LANGABEZIAGATIKO PRESTAZIOAK

5.1.- LANGABEZIAGATIKO BABESAREN EDUKIA

- Langabezi oso zein partzialagatiko prestazio ekonomikoa.
- Gizarte Segurantzari kotizatu beharrekoaren zati bat ordaintzea, langabeziagatiko prestazioa jaso bitartean.

5.2.- PRESTAZIOAK JASOTZEKO BALDINTZAK

- Afiliaturik eta Gizarte Segurantzako altaren tankerako alta egoeran egotea, langabeziagatiko ordainketa onartzen duen erregimenean.
- Langabezi-egoera legalean egotea.
- Langabezi-egoera legalaren aurreko sei urteetan, edota kotizatzeko derrigortasuna bukatu zen unean, gutxienez, 12 hilabete kotizatuak izatea.

5.3.- PRESTAZIOAREN IRAUPENA

- Langabeziagatiko prestazioaren iraupena, langabezi-egoera legalaren aurreko sei urteetan, edota kotizatzeko derrigortasuna bukatu zen unean, kotizatuta izandako lanpealdien arabera izango da, edota, hala dagokionean, aurreko langabezi-prestaziorako eskubidea sortu zen unekoa. Nolanahi ere, hurrengo eskalari jarraituko zaio:

Kotizazio-epea egunetan	Prestazioaren iraupena (hilabeteak)
360 eta 539 bitartean	4
540 eta 719 bitartean	6
720 eta 899 bitartean	8
900 eta 1.079 bitartean	10
1.080 eta 1.259 bitartean	12
1.260 eta 1.439 bitartean	14
1.440 eta 1.619 bitartean	16
1.620 eta 1.799 bitartean	18
1.800 eta 1.979 bitartean	20
1.980 eta 2.159 bitartean	22
2.160tik gora	24

5.4.- PRESTAZIOAREN ZENBATEKOA

• Langabeziagatiko prestazioaren zenbatekoa oinarri erregulatzaileren baitan egongo da, eta langabezi-egoera legalean sartu aurreko azken 180 egunetan, edota kotizatzeo derrigortasuna bukatu zen unea baino lehenagokoetan langabeziagatiko kontingentziengatik kotizatutakoa izango da oinarriaren batezbestekoa.

Jaso beharreko zenbatekoa honakoa da:

- Lehen 180 egunetan, Oinarri Erregulatzaileren % 70.
- 181. egunetik aurrera, Oinarri Erregulatzaileren % 60.

• Prestazioaren zenbatekoa ez da indarrean dagoen gutxieneko soldata interprofesionala 1/6 (aparteko ordainsarien zati proportzionala) gehituta baino 170 % handiagoa izango, langileak bere menpe seme-alabak dituenen ezik; holakoetan, seme-alaben kopuruaren arabera, % 220raino igo ahal izango da proportzio hori. Prestazioaren gutxieneko muga gutxieneko soldata interprofesionalari 1/6 gehitu (aparteko ordainsarien zati proportzionala), eta zenbateko horren % 100 edo % 75 izango da, langileak bere menpe seme-alabak dituenaren arabera.

• INEMek prestaziotik langileak Gizarte Segurantzari kotizatu beharreko zatiaren % 65 deskontatuko du. Halaber, IPFZri dagokion zatia deskontatuko da.

5.5.- PRESTAZIOEN ESKAERAK NOLA BIDERATU

• Enplegu Bulegoan eskatzaile gisa izena eman eta prestazioaren eskabidea egin, langabezi-egoera legalean sartu eta hurrengo hamabost egunetan.

• Lanetik bidegabeki bota izandakoetan, epai-jakinazpena jaso eta hurrengo 15 egunetan emango da izena enplegu-eskatzaile gisa, eta eskaera, berriz, jakinarazpena jaso denetik zenbatzen hasita, hiru hilabeteo itxaronaldi-epaia amaitu eta ondorengo hamabost egunetan.

• Ezinbesteko kasuetan salbu, inskripzioa edo eskaria ezarritako epearen barruan egiten ez bada prestaziorako eskubidetik egun batzuk galdu egingo dira, hain zuzen, inskribatu izatearen eskubidea jaitu eta horren eskaria denboran eta formalki egiteko egunaren eta eskabidea benetan egiten duen egunaren artean daudenak hainbat.

5.6.- PRESTAZIOA ONARTZEKO AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- Prestazioaren eskaera eredu normalizatuan; eredu hau Enplegu Bulegoan bertan eskura daiteke.
- Langabezi-eskaera legalaren kreditatze-agiria.
- Enpresa-egiaztagiria edo -egiaztagiriak, baldin eta langileak azken sei hilabeteetan enpresa bat baino gehiagotan lan egin izan balu, eredu normalizatuan.

- Kotizatu diren azken 180 egunei dagokien kotizazio- edo alokairu-agiri ofizialen kopia.
- Identifikazio- eta afiliazio-agiriak.
- Hala dagokionean, famili kargen aitortpena.

5.7.- PRESTAZIOAREN ORDAINKETA

- INEMek prestazioa aintzakotzat hartu ondoren, eskatzailearen etxera hartutako erabakiaren berri igorriko du.
- Prestazioaren ordainketa hilabete amaieran egingo da Enplegu-bulegoak aukeratutako entitatearen bidez.
- Hilabete bakoitzeko ordainsaria jasotzeko eskubidea, dagokion mugaegunatik urtebetera amaituko da.
- Lehen ordainketan 10 prestazio-egunei dagokien zenbatekoa atxikituko da, eta hau azken ordainketan erregularizatuko da.

5.8.- PRESTAZIOA ETENARAZI ETA PRESTAZIOARI BERREKIN

Eskubidea etenaraztearekin batera, prestazio ekonomikoen eta kotizazioen ordainketa etengo da; hau sortaraz dezaketen arrazoiak honakoak dira:

- Lana zein lan-trebakuntza dela-eta, atzerrira joatea sei hilabete baino denboraldi txikiagoaz.
- Soldadutzara edo Ordezko Prestazio Sozialetara jotzea, edota askatasuna galtzea dakarren kartzela-zigorra betetzea.
- Norberaren edo beste baten kontura lan bat burutzea, sei hilabete baino denboraldi txikiagoaz.
- Arau-hauste arinagatiko zigorra.

5.9.- AUKERATZEKO ESKUBIDEA

- Hamabi hilabete edo gehiagoko lana burutzeagatik prestaziorako eskubidea galtzen denean, eta aurreko prestazioa erabat agortu gabe, prestazio berri baterako eskubidea onartzen denean, langileak idatziz eta onarpena eman denetik hurrengo hamar eguneko epean, hasierako eskubidea agortu edota azken kotizazioek sortutako prestazioak hartzearen artean aukeratu beharko du.
- Langileak aurreko prestazioak agortzea erabakitzen badu, prestazio berria eman duten kotizazioak ezingo dira hurrengo eskubide baterako kontuan hartu.

5.10.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

5.10.1.- ARAU-HAUSTE ARINAK

- Entitate Kudeatzailearen aurrean ez agertzea, honek hala eskatu duenean, arrazoi justifikagarririk gabe.
- Eskaria berritzeko agirian Entitate Kudeatzaileak finkatutako eran eta datan Enplegu-eskaria ez berritzea, arrazoi justifikagarria egotea salbu.
- Instituto horrek helarazitako enplegu-eskaintzak betetzekotan adierazi diren toki eta datan egon izana egiaztatzen duen ziurtagiria INEMi ez itzultzea 5 eguneko epean, arrazoi justifikagarria egotea salbu.

ZIGORRA:

- Prestazioa hilabetez galduko da, eta enplegu-eskatzaille gisa egindako izenematea baliorik gabe geratuko da, hori dela-eta izan zitzakeen eskubideak galduz. Berriz ere arau-hauste berdina egingo balu, zigor gisa eskubidea bertan behera geratuko litzateke.

5.10.2.- ARAU-HAUSTE LARRIAK

- Enplegu-eskaintza egoki bati uko egitea.
- Eskubidea etenarazteko edo bertan behera geratzeko egoerak ematen direnean, edota prestazioa jasotzeko baldintzak betetzen ez direnean, prestazioan baja ez jakinaraztea, arrazoi justifikagarria egotea ezik, eta prestazioa bidegabeki jasotzea.

ZIGORRA:

- Prestazioa bertan behera geratuko da eta enplegu-eskatzaille gisa egindako izenemateak balioa galduko du, hori dela-eta izan zitzakeen eskubideak galduz.
- Bidegabeki jaso den diru-kopurua itzuli beharko da.

5.10.3.- OSO ARAU-HAUSTE LARRIAK

- Prestazioa jasotzen ari den bitartean beste lan bat burutzen jardutea, norberaren zein beste baten kontura.
- Iruzurren bidez bidegabeko prestazioak edota dagozkionak baino handiagoak eskuratzearaztea.
- Enpresariarekin ados jartzea langabeziagatiko prestazioak bidegabeki eskuratzeko.
- Kapitalizatutako langabezi-prestazioak ez aplikatzea edota aplikazio horretan desbideraketak egitea.

ZIGORRA:

- Prestazioa bertan behera geratuko da eta enplegu-eskatzaille gisa egindako izenemateak balioa galduko du, hori dela-eta izan zitzakeen eskubideak galduz.
- Halaber, langabeziagatiko edozein prestazio ekonomiko jasotzeko eskubidea galdu ahal izango du, eta hala dagokionean, baita enplegua sustatzeko laguntzak ere, urte betez.

5.11.- LANGABEZI-SUBSIDIOA

5.11.1.- LANGABEZIAGATIKO PRESTAZIO ORDAINDUAK AGORTU DITUZTEN LANGILEAK

BALDINTZAK:

- Langabezian egotea.
- Enplegu-eskatzaille gisa izena emana izatea, eta ordaindutako prestazioa agortu denetik hilabeteko epean enplegu egokiaren eskaintzarik ukatu ez izana.
- Gutxieneko Soldata Interprofesionala baino % 75 handiagoak diren edozein motatako errentarik ez izatea, zenbatespen horretan aparteko bi soldatei dagokien zati proportzionala kanpo utzita.
- Langabeziagatiko prestazioak agortuak izatea.
- Famili ardurak izatea.

IRAUPENA:

Sei hilabete, iraupen berdineko beste bi epetan luza daitezkeenak, gehienez, 18 hilabete bete arte, hurrengo salbuespenak salbuespen:

- 45 urte baino gazteagoak izanik, gutxienez sei hilabeteko prestazioa agortu dutenek, gainera, 6 hilabeteko beste luzamendu baterako eskubidea izango dute, harik eta 24 hilabete bete arte.
- 45 urte baino zaharragoak izanik, 4 hilabeteko prestazio ordaindua agortu dutenek, gainera, 6 hilabeteko beste luzamendu baterako eskubidea izango dute, harik eta 24 hilabete bete arte.
- 45 urte baino zaharragoak izanik, gutxienez 6 hilabeteko prestazio ordaindua agortu dutenek, 6 hilabeteko beste bi luzamenduetarako eskubidea izango dute, harik eta 30 hilabete bete arte.

ZENBATEKOA:

Indarrean dagoen Gutxieneko Soldata Interprofesionalaren % 75, aparteko Ordainsariei dagokien zati proportzionala kanpo utzita.

5. KAPITULUA

IZAPIDEAK:

Eskaera 15 eguneko epean egingo da, ordaindutako prestazioa agortu eta hilabeteko itxaronaldia bete denetik zenbatzen hasita.

AGIRIAK:

- Famili ardurak izatearen egiaztagiria.
- Gutxieneko Soldata Interprofesionalaren % 75 baino errenta handiagoak ez dituenaren ziurtagiria.


5.12.- LANGABEZI-SUBSIDIOARI EGINDAKO ATXIKIPENAK


Aurrerago aipatutako prestazioaren zenbatekoari, "INEM" edo "ISM", Erakundeak honako atxikipen hauek egingo dizkie:

- Gizarte Segurantzako kotizazioagatik langileak ordaindu beharreko kopuruaren % 65. Kontingentzia arruntengatik (kontingentzia honengatik azken sei hilabeteetan ordaindutako batezbesteko oinarria) langilearen kotizazio-oinarriari (langilearen konturako kotizazio mota) % 4,7 aplikatuz aterako da langilearen kuota.
- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (P.F.E.Z.) konturako atxikipeña, urtean zehar onartua duen langabezi-prestazioko kopuruaren arabera izango dena, honako taula honen arabera gauzatuko da:

Prestazioen kopurua urtean (pezetak)	Atxikipenaren portzentaia
1.210.000 arte	0
1.210.000 baino gehiago	1
1.320.000 " "	4
1.430.000 " "	6
1.540.000 " "	7
1.760.000 " "	9
1.980.000 " "	11

AHAIDETASUN-MAILEN KOADROA





BAJAK. PROZEDURA ETA ORDAINKETAK

7.1.- FUNTZIONARIOAK:

BAJAK:

- 4. egunean 1. eguneko data duen baja-partea eman.
 - 8. egunetik aurrera lizentzi eskaera egin.
 - 15. egunean bajan jarraitzeko parte eman.
 - 30. egunean bajan jarraitzeko parte eta lizentzi eskaera.
- Une horretatik aurrera, hamabostean behin bajan jarraitzeko parte, eta hilabetean behin lizentzi eskaera.

ORDAINKETAK:

- Lehen hiru hilabeteetan Postak hartzen du bere gain ordainketen % 100.
- 3. hilabetetik aurrera, Postak soldaten eta hirurtekoen % 100 ordaintzen du. MUFACEK, gehienez, hurrengo oinarri erregulatuzailearen % 80 ordaintzen du:

$$\frac{\text{Urteko alokairua} + \text{aparteko 2 ordainsari} + \text{hirurtekoak}}{12 \text{ hilabete}}$$

Portzentaia honek ezin du, inola ere, lizentziaren aurreko hilabeteko ordainketa osagarriak baino handiagoa izan (lantokiaren osagarria + osagarri berezia + tarreak).

7.2.- LAN-KONTRATUKO LANGILEAK:

BAJAK:

- 3. egunean 1. eguneko data duen baja-partea eman.
- Gainerako 7 egun bakoitzeko, baja-partea.

ORDAINKETAK:

- Urteko lehen baja: Lehen hiru egunetan % 50 jasotzen da, hortik aurrera % 100.
- Urteko bigarren baja: Lehenengo egunean % 50, hurrengo biak galdu egiten dira eta hortik aurrera % 100.
- Urteko hirugarren baja: 3 egun galdu egiten dira eta gainerakoetan % 100.

7.3.- BEHIN-BEHINEKOAK: AMATASUN EDO BESTELAKO BAJAN EGONIK KONTRATUA BUKATZEA.

Behin kontratua bukatuta, Postak ez ditu ordainketa hauek bere gain hartzen.

7. KAPITULUA

Behin-behineko egoeran dagoen bat gaixotasun arrunta, lan-istripua edo erditzeagatik bajan sartu eta egoera horretan dagoela kontratua bukatzen bazaio, **KOBRAZTEN JARRAITU AHAL IZATEKO ESKARIA EGIN BEHAR DU** Gizarte Segurantzaren Institutotan, beti ere kasu konkretu bakoitzerako eskatzen diren baldintzak betetzen badira:

GAIXOTASUN ARRUNTA

Ordainketa hauek jasotzeko eskubidea izateko, azken 5 urtetan 180 egun kotizaturik eduki behar dira.

Gizarte Segurantzaren Institutoak bajaren 16. egunetik 20. egunera aurreko hileko kotizazio-oinarriaren % 60 ordainduko du, eta 21. egunetik aurrera oinarri horren % 75.

AMATASUNA

Amatasunagatiko bajaren 16 asteak kobratzen jarraitu ahal izateko azken 5 urtetan 180 egun kotizaturik eduki behar dira, eta lehen afiliazioak, gutxienez, gertakaria baino bederatziz hilabete lehenagokoa izan behar du.

Gizarte Segurantzaren Institutoak lehen egunetik ordainduko du aurreko hilabeteko kotizazio-oinarriaren % 100.

LAN-ISTRIPUA

Lehenengo egunetik, Gizarte Segurantzaren Institutoak aurreko hileko kotizazio-oinarriaren %75 ordainduko du.

7.4.- BEHIN-BEHINEKO LANGABETUAK: GAIXOTASUN EDO AMATASUNAGATIKO BAJA

Langabezia kobratzen ari zaren bitartean gaixotasun arruntagatiko baja hartzen baduzu edo erditu egiten baduzu, langabezi-kobraketa eten eta bajagatik edo amatasunaren 16 asteengatik kobratzen has zaitezke. Langabezi-denborak aurrera jarraitzen duen arren, baja edo amatasunaren baimenagatik kobratzen dena langabeziagatik kobratzen dena baino gehiago izan ohi da.

Alta hartu edo amatasunaren 16 asteak bete ondoren berriz ere kobratzeko geratzen den langabezi-kobraketa jasotzen has zaitezke, agortu ez bada behintzat.

Eskaera hau Gizarte Segurantzaren Institutotan egin behar da.

8. KAPITULUA

FUNTZIONARIOEN ALOKAIRUAK 1997-AN

Lan- postua	Taldea	Oinarrizko soldata hileko	Lantoki Osagarria hileko	Osagarri Berezia hileko	1996ko Hilabetea guztira
11. MAILA					
* S.B.L. Motorraz	D	78.651	32.743	34.134	145.528
Sailkatzailea	D	78.651	32.743	25.198	136.592
* S.B.L. oinez	D	78.651	32.743	23.709	135.103
Jend. Barne Zerb.	D	78.651	32.743	22.964	134.358
Barne-trafikoa	D	78.651	32.743	21.474	132.868
11. MAILA					
Karretila	D	78.651	32.743	30.409	141.803
Gidaria	E	71.802	32.743	30.409	134.954
Kanpo	D	78.651	32.743	23.709	135.103
Zerbitzua	E	71.802	32.743	23.709	128.254
Barne	D	78.651	32.743	21.474	132.868
Zerbitzua	E	71.802	32.743	21.474	126.019

* S.B.L.: Sailkatzaile Banatzaile Laguntzailea.

8. KAPITULUA

Lan-postua	Taldea	Oinarrizko Soldata hileko	Lantoki Osagarria hileko	Osagarri Berezia hileko	1996ko hilabetea guztira
12. MAILA					
Makinen erabiltzailea	C	96.189	35.834	43.043	175.066
	D	78.651	35.834	43.043	157.528
Fonotelexaren eragilea	C	96.189	35.834	37.856	169.879
	D	78.651	35.834	37.856	152.341
Zerbitzu publikoa	C	96.189	35.834	28.176	160.199
	D	78.651	35.834	28.176	142.661
Barneko Gen- texaren eragilea	C	96.189	35.834	27.432	159.455
	D	78.651	35.834	27.432	141.917
Ustiapen trafikoa	C	96.189	35.834	25.943	157.966
	D	78.651	35.834	25.943	140.428
Ustiapen kontrola	C	96.189	35.834	23.709	155.732
	D	78.651	35.834	23.709	138.194

JAIEGUNAK - LARUNBATAK - GAUAK - APARTEKO ORDUAK

	Modulua/ordu
Jaiegunak	900
Larunbatak	337
Gauak	218
Aparteko ordua	1.496

Posta Kutzaz gain, badira nomina helbideratzeagatik bizi-aseguruak eta beste hainbat abantaila eskaintzen duten bestelako banku-entitateak ere.

OSAGARRI BEREZIAREN TARTEAK

TARTEA	ANTZINTASUNA	HILEROKO ZENBATEKOAK
0	1 eta 3 urte bitartean	1.553
1	3 eta 6 urte bitartean	2.588
2	6 eta 9 urte bitartean	4.451
3	9 eta 12 urte bitartean	6.210
4	12 eta 15 urte bitartean	7.866
5	15 eta 18 urte bitartean	10.143
6	18 urtetik gora	12.938

LANTOKI-
OSAGARRIA


Maila	Pezetak/ hilero
30	133.503
29	119.751
28	114.714
27	109.676
26	96.219
25	85.367
24	80.331
23	75.296
22	70.257
21	65.230
20	60.593
19	57.496
18	54.402
17	21.306
16	48.215
15	45.119
14	42.026
13	38.930
12	35.834
11	32.743

OINARRIZKO ORDAINKETAK

	Hileroko zenbatekoa	
TALDEA	SOLDATA	HIRURTEKOA
A	152.037	5.838
B	129.038	4.670
C	96.189	3.505
D	78.651	2.340
E	71.802	1.755

DESKONTUAK

TALDEA	MUFACE	PASIBOAK
A	5.393	12.318
B	4.244	9.695
C	3.260	7.445
D	2.579	5.891
E	2.199	5.022



9. KAPITULUA

LAN-KONTRATUKO LANGILEEN ALOKAIRUAK 1997-AN

JAIEGUNAK - LARUNBATAK - GAUAK

	Modulua/orduko	Eguna	Hilabetea
Jaiegunak	315		
Larunbatak	315	919 (1)	
Gauak	204		24.904
Gauak laguntz. gabe			22.376

(1) Lan egindako larunbateko kantitate finkoa, "B" motako herrietako bitartekariarentzat bakarrik.

LAN-KONTRATUKO LANGILE FINKOAK

	Ajente Titularra Herrietako bitart.	Ajente Titularra Bulego Laguntz.	Sailk. eta Banaketa Ajentea
Hileko oinarrizko soldata	99.616	99.616	99.616
Eguneko oinarrizko soldat.	3.321	3.321	3.321
OSAGARRIAK			
Herrietako bitart. ibilgailu.	31.818		
Herrietako bitartek. oinez	22.142		
Bulego Laguntzailea		22.142	
Sailk. Banak. eta Bitartekot.		22.142	

9. KAPITULUA

HAINBAT KONTZEPTUENGATIKO KALTE-ORDAINAK

	EGUNA	HILABETEA
Lokalaren ekarpena	38	1.142
AMORTIZAZIO, ASEGURU ETA ZERGAK (1)		
Automobila, ibilitako Km.ko	12,82	320,50
ZP. bat edo gehiagoko motorra, ibilitako Km.ko	6,11	152,75
Ziklomotorra, ibilitako Km.ko	6,23	155,75
ERREGAI-KONTSUMOA ETA MANTENUA (1)		
Automobila, ibilitako Km.ko	11,10	277,50
ZP. bat edo gehiagoko motorra, ibilitako Km.ko	6,29	157,25
Ziklomotorra, ibilitako Km.ko	5,46	136,50

(1) Balio hauek 1994tik eguneratu gabe daude, eta ez zaizkie aplikatu 95 eta 96 urteei dagozkien inkrementuak.

LAN-KONTRATUKO LANGILE FINKOEN ANTZINTASUNA

	AJENTE TIT. NEKAZAL-ARLO.	AJENTE TIT. OFIZIAL LAG.	AJENTEA SAILK. BANAK.
Hirurt. Antzintasu. C lanaldia (hilabe.)	2.183	2.183	2.183
Hirurt. Antzintasu. C lanaldia (eguna)	73	73	73
Hirurt. Antzin. ordubete/egun (hilab.)	310	310	310
Hirurt. Antzin. ordubete/egun (eguna)	10	10	10

LAN-KONTRATUKO BEHIN-BEHINEKO LANGILEAK						
Lanpostua	Oinarrizko Soldata eguneko	Oinarrizko Soldata hileko	Osaga- rriak	95en konturako inkrement.	96ren konturako inkrement.	1997ko hilabetea guztira
12. MAILA						
Zerbitzu Publiko Ordezkoa	3.321	99.616	29.182	4.508	4.666	137.972
Ustiapen Trafikoko “	3.321	99.616	27.115	4.436	4.591	135.758
Ustiapen Kontroleko “	3.321	99.616	25.015	4.362	4.515	133.508
11. MAILA						
Motorrezko SBLren ordezko.	3.321	99.616	31.868	4.602	4.763	140.849
Oinezko SBLren ordezkoa	3.321	99.616	22.142	4.262	4.411	130.431
Jend. Barne Zerb. ordezko.	3.321	99.616	21.431	4.237	4.385	129.669
Barne Trafik. ordezkoa	3.321	99.616	20.042	4.188	4.335	128.181
Karretila gidariaren ord.	2.983	89.503	32.730	4.278	4.428	130.939
Kanpo Zerbitzuko ordezkoa	2.983	89.503	26.462	4.059	4.201	124.225
Barne Zerbitzuko ordezkoa	2.983	89.503	24.394	3.986	4.126	122.009
1. Tek.Lag. ordezkoa N-14	3.321	99.616	23.163	4.297	4.448	131.524
2. Tek.Lag. ordezkoa N-11	3.321	99.616	20.167	4.192	4.339	128.314
3. Tek.Lag. ordezkoa N-10	3.321	99.616	17.259	4.091	4.234	125.200

GARBITZAILEAK

OINARRIZKO ALOKAIRUA	
Oinarrizko Alokairua Lanaldi Osoa (hilabetea)	93.187
Oinarrizko Alokairua Lanaldi Osoa (eguna)	3.106
Oinarrizko Alokairua ordubete/egun Lanaldia (hilabetea)	13.253
Oinarrizko Alokairua ordubete/egun Lanaldia (eguna)	442
Oinarrizko Alokairua ordubete/egun 4 E/A hilean	9.940
Oinarrizko Alokairua ordubete/egun 3 E/A hilean	7.455
ANTZINTASUNA	
Lanaldi Osoko hirurtekoa (hilabetea)	3.003
Lanaldi Osoko hirurtekoa (eguna)	100
Ordubete/egun Hirurtekoa (hilabetea)	427
Ordubete/egun Hirurtekoa (eguna)	14
Ordubete/egun 4 E/A Hirurtekoa (hilabetea)	320
Ordubete/egun 3 E/A Hirurtekoa (hilabetea)	240

Lan-kontratuko langile finkoei dagozkien tauletan ez ditugu gehitu 95eko % 3,5a eta 96ko % 3,5a. Behin-behinekoen tauletan, aldiz, nominetan bereizirik agertzen diren bi kontzeptu hauek, hemen ere bereizirik adierazi ditugu, horrela gonbaraketa errazagoa izan dadin.

LAN-KONTRATUKO LANGILEEN DESKONTUAK

- P.F.E.Z.: taulen araberako portzentaiak eta ordainsari gordinei aplikatuta.
- Gizarte Segurantzako kontingentziak: % 4,7 kotizazio-oinarriaren gainean. (1)
- Langabeziagatiko G.S.ko kotizazioa: % 1,7 kotizazio-oinarriaren gainean. (1)

(1) KOTIZAZIO OINARRIA. Kopuru hau beti 300 zenbakiaren multiploa da eta ordainsari osoari aparteko ordainketetatik hilabetero hainbanakako bat batuz ateratzen da.

BEHIN-BEHINEKO LAN-KONTRATUKOAK, ORDAINKETEN KALKULUA

1.995eko abuztuaz geroztik Posta, kontratuaren iraupenaren arabera, hainbat formula aplikatzen ari da behin-behineko lan-kontratuak ordaintzeko.

HILABETE EDO GEHIAGOKO KONTRATUA

OSOA:

$$\frac{\text{SOLDATA} + \text{KONTURAKO INKREMENTUAK} + \text{OSAGARRIAK}}{30} \times \text{Egun Kopurua}$$

FINIKITOA:

**Aparteko
ordainsaria**

$$\frac{\text{SOLDATA} + \text{KONTURAKO INKREMENTUAK}}{180} \times \text{Egun Kopurua}$$

**Opor eta gai
propioetako
ordainsaria**

$$\frac{\text{SOLDATA} + \text{KONTURAKO INKREMENTUAK} + \text{OSAGARRIAK}}{300} \times \text{Egun Kopurua}$$

HILABETEKOAK BAINO KONTRATU LABURRAGOAK

- Urteko lan-ordu kopuruaren arabera lan-ordu efektiboak.
- Urteko lan-ordu kopurua: 1.711, indarrean dagoen Talde Hitzarmenaren arabera.

OSOA:

$$\frac{(\text{SOLDATA} + \text{OSAGARRIAK} + \text{KONTURAKO INKREMENTUAK}) \times 11}{1.711} \times \text{Ordu Kop.}$$


FINIKITOA:

**Aparteko
ordainsaria**

$$\frac{((\text{SOLDATA} + \text{KONTURAKO INKREMENTUAK}) \times 2)}{1.711} \times \text{Ordu Kopurua}$$

**Opor eta gai
propioetako
ordainsaria**

$$\frac{\text{SOLDATA} + \text{KONTURAKO INKREMENTUAK} + \text{OSAGARRIAK}}{1711} \times \text{Ordu Kopurua}$$



EUSKARA IKASTAROEN ORDAINKETA

Azken urteetan Postak bere gain hartu du bertan lan egiten duten funtzionario nahiz lan-kontratuko langile finkoen euskara ikastaroen ordainketa, Hego Euskal Herriko lau herrialdeetan. Ordainketa hauetatik at geratzen dira bai behin-behineko langileek burututakoak, bai barmetegiak.

Nahiz eta ados ez egon Postak ikastaroak ordaintzeko egiten dituen eskakizunekin, laguntzak eskatzeko jarraitu beharreko prozesuaren berri emango dizuegu.

- Urria eta abendua bitartean Probintzia Buruzagitzek bulego eta dependenzietara eskariak egiteko baldintzak eta epeak adierazten diren ofizioa igorri ohi dute. Epe hau berriro Otsailean irekiko da Otsailetik Ekainera bitartean egingo diren ikastaroetarako.

- Eskatzaileek hurrengo dokumentuak igorri behar dituzte:

DATU-FITXA bat; hau Probintzia Buruzagitzan eskura daiteke.

IKASTAROAREN EGIAZTAGIRIA, ikaslea matrikulatu deneko maila adieraziz.

- Ikastaroa bukatu ondoren bidali beharreko agiriak hauek dira:

ASISTENTZI EGIAZTAGIRIA, non hurrengo datuak adieraziko diren: Ikaslearen izena, lortutako maila, ikastordu-kopurua, ikaslearen asistentziaren ordu-kopurua.

FAKTURA, non hurrengo datuak adieraziko diren: Euskaltegiaren izena, Identifikazio Fiskalaren Zenbakia, ikaslearen izena; ikasturtearen eta matrikularen zenbatekoa (bertan BEZa salbuetsirik dagoela agertaraziko da), ikastegiaren zigilua eta sinadura.

- Postak, agiri guztiak euskaraz eta gazteleraz egotea eskatzen du.

- Beste maila batean matrikulatuz gero, maila horri dagokion dokumentazioa ekarri beharra dago.

- Postak gorde egiten du bere froga propioak egiteko eskubidea, adierazi diren mailak benetan lortu direla eta ikastaroen aprobetxamendua egiaztatzeko.

PFEZ (I.R.P.F.) KENKARIAK BASKONGADETAN

URTEKO SOLDATA (pzta)	SEME-ALABAK								
	0	1	2	3	4	5	6	7	8 edo +
Porzentaiak (%)									
1.210.000 arte	0	0	0	0	0	0	0	0	0
1.210.000 baino gehi	3	1	1	0	0	0	0	0	0
1.320.000 " "	6	4	3	1	0	0	0	0	0
1.430.000 " "	7	6	4	3	1	1	1	0	0
1.540.000 " "	8	7	5	3	3	2	1	1	0
1.760.000 " "	10	9	7	6	5	4	3	1	0
1.980.000 " "	12	11	10	9	8	6	5	4	0
2.200.000 " "	14	13	12	11	10	8	7	6	1
2.420.000 " "	15	14	13	12	11	10	8	7	3
2.750.000 " "	17	15	15	14	13	12	11	7	5
3.080.000 " "	18	17	16	15	14	13	13	12	7
3.520.000 " "	19	18	17	17	16	15	14	14	9
3.960.000 " "	20	19	19	18	17	17	16	15	11
4.400.000 " "	21	20	20	20	19	19	18	17	11
5.060.000 " "	23	22	22	21	21	20	19	18	14
5.720.000 " "	25	24	24	23	23	22	21	20	16
6.600.000 " "	26	25	25	24	24	24	23	22	19
7.700.000 " "	28	27	27	26	25	25	25	25	22
8.800.000 " "	31	30	30	29	28	28	28	27	23
9.900.000 " "	33	32	32	31	31	30	30	29	25
11.000.000 " "	35	34	34	34	33	33	32	32	31
13.200.000 " "	38	37	37	37	37	36	36	36	34
15.400.000 " "	41	40	40	40	40	39	38	38	36
17.600.000 " "	44	42	42	42	42	41	40	40	39
19.800.000 " "	46	45	45	45	44	44	44	44	43
22.000.000 " "	47	46	46	46	46	46	46	45	45

DESENPLEGUAREN KENKARIAK

URTEKO DIRU KOPUR.	PORZENTAIK	URTEKO DIRU KOPUR.	PORZENTAIK
1.210.000 arte	0	1.540.000 baino gehiago	7
1.210.000 baino gehiago	1	1.760.000 baino gehiago	9
1.320.000 baino gehiago	4	1.980.000 arte	11
1.430.000 baino gehiago	6		

PFEZ (I.R.P.F) KENKARIAK NAFARROAN

URTEKO SOLDATA (pzta)	SEME-ALABAK								
	0	1	2	3	4	5	6	7	8 edo +
Porzentaiak (%)									
1.280.000 arte	0	0	0	0	0	0	0	0	0
1.280.000 baino gehi.	2	0	0	0	0	0	0	0	0
1.385.000 " "	4	2	0	0	0	0	0	0	0
1.490.000 " "	6	4	2	0	0	0	0	0	0
1.705.000 " "	8	7	4	2	0	0	0	0	0
1.915.000 " "	10	9	7	4	1	0	0	0	0
2.125.000 " "	12	10	8	6	4	0	0	0	0
2.340.000 " "	13	12	10	9	6	3	0	0	0
2.660.000 " "	15	14	12	11	9	6	3	1	0
2.980.000 " "	16	15	14	12	10	8	6	4	1
3.400.000 " "	17	16	15	14	12	10	8	6	4
3.826.000 " "	18	17	16	15	14	12	10	8	6
4.250.000 " "	19	18	18	17	15	14	12	10	9
4.885.000 " "	20	20	19	18	17	15	14	13	11
5.525.000 " "	22	21	21	20	19	18	16	15	14
6.375.000 " "	23	23	23	22	21	20	19	18	17
7.435.000 " "	25	25	24	24	23	22	21	20	19
8.500.000 " "	27	27	26	26	25	24	24	23	22
9.560.000 " "	29	29	28	28	27	26	26	25	24
10.620.000 " "	31	31	31	30	30	29	29	28	27
12.745.000 " "	34	34	34	33	33	32	32	31	31
14.870.000 " "	36	36	36	36	35	35	34	34	33
16.990.000 " "	38	38	38	37	37	37	36	36	35
19.115.000 " "	39	39	39	39	38	38	38	37	37
21.240.000 " "	41	40	40	40	40	40	39	39	39

DESENPLEGUAREN KENKARIAK			
URTEKO DIRU KOPUR.	PORZENTAI	URTEKO DIRU KOPUR.	PORZENTAI
1.210.000 arte	0	1.540.000 baino gehiago	7
1.210.000 baino gehiago	1	1.760.000 baino gehiago	9
1.320.000 baino gehiago	4	1.980.000 arte	11
1.430.000 baino gehiago	6		

LABeko Sedeak

Helbidea

Telefonoa

Fax

ARABA

BULEGO PROBINTZIALA	Bueno Monreal, 16 - behea	25 58 77	25 35 98
AGURAIN	Carnicerías, 22	30 11 72	
AMURRIO	Ayala Etorbidea, 7 - behea	39 31 22	
GASTEIZ	Bueno Monreal, 16 - behea	25 58 77	25 35 98
LAUDIO	Nervión, 1 - 2º	(94) 672 27 14	(94) 672 63 78
OION	Nagusi kalea, 9 - behea	(94) 672 57 31	
URDUÑA	Frankos kalea, 2 - behea	(941) 10 18 94	
		(94) 38 44 50	

BIZKAIA

BULEGO PROBINTZIALA	Colón de Larreategi 31, 3. -Ezk.	423 30 19	424 42 80
SEKTOREAK	Astarloa, 6 - 4º	424 91 60	423 35 45
AHOLKULARITZA JURIDIK.	Astarloa, 6 - 4º	423 18 23	423 35 45
BARAKALDO	Aldapa, 12 -solairuartea	438 50 29	438 50 29
		437 38 89	
BASAURI	León, 10 -behea	449 81 21	449 81 21
BERMEO	Juan de Nardiz, 27 - 1º	688 54 95	
BILBO	Astarloa, 6 - 1º	423 23 16	423 85 48
		423 23 17	
DURANGO	Andra Mari, 9 - 2º -C	681 85 09	681 85 09
ELOORRIO	San Juan, 18 - behea	623 16 07	
ERANDIO	San Agustín Plaza, 3 - 1º	467 01 56	467 69 95
		467 69 95	
ERMUA	Cardenal Orbe Plaza, 2 - 1º	(943) 17 64 46	
GERNIKA	Juan Kaltzada, 4 - 2º	625 39 41	625 39 41
IGORRE	Lehendakari Agirre, 7 - 4º	631 92 22	
ONDARROA	Itxasaurre, 6 - 1º -H	683 30 44	613 40 99
SODUPE	Dorretxea, 1	639 91 52	
SONDIKA	Justo Ajuria, 5 -solairuartea	453 39 97	453 39 97
ZORNOTZA	Carmen, 31, Bl. 2 -behea	673 18 62	

GIPUZKOA

BULEGO PROBINTZIALA	San Blas, 1 - behea	32 10 08	32 04 71
IRAULTZEN	San Blas, 1 - behea	32 08 55	32 04 71
IRAKASKUNTZA	Isabel II, 5 - solairu. G	45 85 62	47 27 09
OSASUNGINTZA	Ilunbe, 7 - solairu.	47 24 87	45 66 45
UDAL eta FORU ADMINIST.	Ilunbe, 7 - solairu.	47 08 44	45 66 45
ANDOAIN	Elizondo Enparantza, 2 -behea	59 12 80	
ARRASATE	Garibai Etorbidea, 14 - 2º	79 74 08	79 74 08
AZPEITIA	Enpara Kalea, 11 -1. esk.	15 13 56	
BEASAIN	Oria Pasealekua, 2	88 14 45	88 14 45
BERGARA	Irizar Ibilbidea, 2- 1º	76 01 89	76 01 89
DEBA	Iturkale, 28 - 2º	19 14 31	
DONOSTIA	Ilunbe, 7 - solairu.	45 86 40	45 66 45
EIBAR	Bidebarrieta, 10 - 1º	20 21 99	70 04 27
ELGOIBAR	San Ignacio, 1 - behea	74 38 86	
HERNANI	Kardaberaz, 56 - 58 -solairu.	55 67 17	33 22 70
IRUN	Úranzu, 23 - 1º -B	62 47 14	61 59 64
LASARTE	Aralar Plaza, 7 - behea	36 67 29	
LEGAZPIA	Aitzgorri Kalea, A - 1º	73 03 83	73 03 83
ONATI	Kale Barria, 13 - 1º	78 25 90	78 25 90
ORERETA	Avda. Navarra, 61 -2. ezk.	51 40 62	52 36 88
ORIO	San Nicolás, 4	13 09 78	
TOLOSA	Zumalakarregi, 1 - behea	65 54 51	65 54 51
ZARAUTZ	Egaña Kalea, 7	13 14 80	13 14 80

NAFARROA

BULEGO PROBINTZIALA	Curia, 17 - 19 - behea	22 11 30	22 12 76
ALTSASU	El Ferial, 41 - 1º	46 76 05	46 76 05
ATARRABIA	Joakin Puy, 9 - behea	13 08 07	13 08 07
BERA	Errotazar, 5 - behea	63 06 70	63 06 70
BIANA	La Solana, 35 - behea	44 63 47	
IRUNEA	Curia, 17 - 19 - behea	22 11 30	22 12 76
IRURTZUN	Bi Ahizpak, 30 - 3º -eskubia	60 06 13	
LIZARRA	Santiago Plaza, 49 - 2º	55 08 33	
PERALTA	Bajadero, 1 -2. behea		
TAFALLA	Severino Fernández Etorbidea, 7	70 02 12	70 02 12
TUTERA	Foruak Enparantza, 1 - 3º -esk.	82 50 88	82 50 88